

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkaria

2017ko laneko jaiegunen egutegia

Ebazpena, 2016ko irailaren 28koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde-ordezkararena, 2017rako Araban tokiko jaiegunak ezartzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 10eko 71/2016 Dekretuaren bidez (2016ko maiatzaren 13ko EHAA), honako hau onartu du: 2017. urtean, igandeez gain, hamabi egun baliogabe egotea lan-ondorioetarako.

Hona hemen hamabi egun baliogabe horiek:

urtarrilaren 6a, Errege eguna.

apirilaren 13a, ostegun Santua.

apirilaren 14a, ostiral Santua.

apirilaren 17a, Pazko astelehena.

maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

uztailaren 25a, Santiago Apostolua.

abuztuaren 15a, Andra Mari eguna

urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

azaroaren 1a, Domu Santu eguna

abenduaren 6a, Konstituzio eguna.

abenduaren 8a, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna

abenduaren 25a, Eguberri eguna

Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde-ordezkaria eskuduna da honakoa ezartzeko: lurralde historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta errekupeatu behar ez direnak, tradizioz tokiko festak izan ohi direnak. Horretarako, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar izan dute aurretik. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan eta apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera. Azken horrek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du.

Udalekin egin beharreko kontsulta egin eta gero, honako hau,

Ebazten dut:

Lehena eta bakarra: Arabako lurralde historikoan, 2017rako tokiko eremuko bi jaiegunak, ordainduak eta errekuiperatu behar ez direnak, lan-ondorioetarako lan baliogabetzat hartzen direnak, hauexek izango dira:

Arabako jaieguna

apirilaren 28a	(San Prudentzio)
----------------	------------------

Toki mailako jaiegunak

Agurain	ekainaren 24a	(Done Joane Bataiatzailea)
Aiara		
Agüñaga	uztailaren 25a	(Done Jakue)
Añes	maiatzaren 22a	(San Ramiro)
Arespalditza	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Beotegi	irailaren 29a	(Done Mikel)
Erbi	maiatzaren 3a	(Gurutzea)
Etzegoien	maiatzaren 8a	(Antiguako Ama)
Izoria	urtarrilaren 7a	(Done Julian)
Kexaa	abuztuaren 5a	(Elurretako Andra Maria)
Lexartzu	abuztuaren 9a	(Sortzez Garbiaren eguna)
Luxo	abuztuaren 16a	(Jasokundearen eguna)
Luiaondo	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Llantenó	uztailaren 25a	(Done Jakue)
Madaria	azaroaren 23a	(San Klemente)
Maroño	urtarrilaren 17a	(San Anton)
Menagarai	ekainaren 29a	(Done Petri)
Menoio	apirilaren 25a	(San Marko)
Murga	ekainaren 24a	(Done Joane)
Olabezar	urtarrilaren 24a	(San Babilas)
Opellora	irailaren 29a	(Done Mikel)
Ozeka	urriaren 9a	(Errosarioko Andra Maria)
Retes de Llantenó	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Salmantón	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Soxo	abuztuaren 30	(Done Meteri)
Zuhatza	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Alegria-Dulantzi	otsailaren 3a	(San Blas)
Amurrio	abuztuaren 16a	
Añana	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Aramaio	uztailaren 3a	(San Martin)
Armiñón	azaroaren 11	(San Martin Toursekoa)
Arraia-Maeztu	ekainaren 19a	(San Adrian)
Arratzua-Ubarrundia	abuztuaren 26	(San Esteban)
Artziniega	irailaren 8a	(Arteako Andra Maria)
Asparrena	ekainaren 29a	(Done Petri)
Barrundia	ekainaren 26a	(Done Joane)
Bastida	azaroan	(Eske Oneko 2. eguna)
Berantevilla	irailaren 8a	(Jaiotzaren eguna)
Bernedo	irailaren 8a	
Bilar	abuztuaren 16a	(San Roke)
Burgelu	ekainaren 29a	
Donemiliaga	azaroaren 13a	(Done Milian)

Elciego	irailaren 8a	(Plazako Andra Maria)
Erribera Beitia	abuztuaren 28	
Erriberagoitia	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Eskuernaga	maiatzaren 15a	(San Torkuato)
Gaubea	maiatzaren 15a	
Harana	maiatzaren 15a	(San Isidro Nekazaria)
Alda	ekainaren 29a	(Done Petri)
Done Bikendi Harana	urtarrilaren 22a	(Done Bikendi)
Kontrasta	abuztuaren 16a	(San Roke)
Uribarri-Harana	ekainaren 24a	(Done Joane)
Iekora	abuztuaren 18a	(Berzijanako Andra Maria)
Iruña Oka		
Billoda	uztailaren 10a	
Langraiz Oka	abuztuaren 17	
Mondaita		
Olabarri		
Tresponde	maiatzaren 20a	
Iruiaiz-Gauna	ekainaren 23a	(Done Joane)
Kanpezu	maiatzaren 15a	(San Isidro)
Kripan	irailaren 8a	(Andra Maria)
Kuartango	ekainaren 23a	
Lagran	abuztuaren 24a	
Laguardia	ekainaren 29a	(Done Joane Bataiatzailea)
Lantziego	irailaren 8a	(Landako Andra Maria)
Lantarón	irailaren 18a	
Lapuebla de Labarca	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laudio	abuztuaren 16a	(San Roke)
Legutio	irailaren 11	(Kofradiak)
Leza	abuztuaren 16a	(San Roke)
Mañueta	uztailaren 10a	(Done Kristobal)
Moreda Araba	abuztuaren 18a	(Esker Oneko eguna)
Navaridas	ekainaren 2a	(Done Joane Ortegakoa)
Okondo	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Oyón-Oion	urtarrilaren 22a	(Bikendi eta Anastasi Santuak)
Peñacerrada-Urizaharra	maiatzaren 15a	
Samaniego	irailaren 8a	(Haranako Andra Maria)
Urkabustaiz	urriaren 2a	(Errosarioko Andra Maria)
Vitoria-Gasteiz	abuztuaren 5a	(Andra Mari Zuria)
Zalduondo	ekainaren 10a	(Hargatiko Eguna)
Zanbrana	abuztuaren 5a	
Zigoitia	abuztuaren 4a	
Zuia	irailaren 29a	(Done Mikel)

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 28a

Arabako lurralde ordezkaria
ÁLVARO IRADIER ROSA